



# EUSKARAZ PRAKTIKATU NAHI? LAGUN BERRRIAK EGIN NAHI?

ZATOZ GUREKIN!

[www.praktikatu.eus](http://www.praktikatu.eus)



## #PRAKTIKATUetaBIZI

### 11 aukera euskaraz praktikatu eta bizitzeko

Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin; edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat.

**Giro atseginean eta lagunartean**, ahalegin handirik gabe, ordu-tegi arazorik gabe... zeuk erabakiko duzu noiz eta nola.

**Edonork parte har dezake:** euskararen bidea egiten ari denak, praktikaren bidez euskara hobetu nahi duenak edota euskaraz bizitzeko aukera gehiagoren bila dabilenak. Parte hartzeko gutxieneko euskara-maila eskatzen da.



### Mintzataldeak

Partaideak binaka, hirunaka... edo talde txikietan batzen dira; horiek osatzeko, kontuan hartzen ditugu parte-hartzaileen disponibilitatea, adina eta zaletasunak.

Mintzataldeak bildu ahal dira kafetegian, tabernan, edo paseoan ibiltzeko... **parte-hartzaileek erabakitzen dute non eta noiz**, beti lagun-giroan.



### Gurasolagun

**Familientzako mintzataldeak dira;** jolasak, txangoak eta tailerrak egiten ditugu, **helduak eta haurrak batera aritzeko**. Hainbat familia batzen direnez, aukera aproposa ere bada lagun berriak egiteko. Asteburu-pasak ere antolatzen ditugu (urtean bitan, gutxienez).



### Kultura eta Aisia

Antolatzen ditugun ekintzen bidez, beste hainbat aukera topatuko dituzu **euskal kultura ezagutu eta euskara praktikatzeko**. Besteak beste: hitzaldiak; irakurzale-klubak; sukaldaritza-eskulan-yoga edo dantza-tailerrak; kantulagunak...



### Kirola eta Natura

**Kirolaren edo naturaren inguruko jarduerak** ere egiten ditugu: mendilagun, bizikletaz ibiltzeko taldeak, martxa nordikoa, yoga, berbabentura (eskia, eskalada, surfa...), etab.



### Mintzodromoak

Mintzodromoak herriko plazan antolatzen dira, eta **aukera ezin hobeak izaten dira inguruko euskaltzaleok batzeko**. *Jalgi hadi plazara!*



### ONLINE ere bai

Zure ordenagailu, tablet edo telefonotik beste euskaldun batzuekin hitz egin nahi baduzu, online eskaintza ere baduzu: mintzataldeak, autu-mautuak, lehiaketak...



### Abantailak

**Parte-hartzea dohainik da, eta hamaika abantaila eskura ditzakezu:** emanaldietarako txartelak, zozketak eta opariak, deskontuak (esaterako, AIZU!, ARGIA, BERRIA, GAZTEZULO eta HARMAILAko harpidetzetan)...